

## Xedapen Orokorrak

### EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

1514

80/2010 DEKRETUA, martxoaren 9ko, enpresa txiki eta ertainentzako, banako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntzaren Programa garatzen duen dekretua aldatzen duena.

Otsailaren 9ko 41/2010 Dekretuaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko 2010. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzan dituen abenduaren 23ko 2/2009 Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarrian jasotako enpresa txiki eta ertainentzako, banako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntzaren programa onetsi zen. Horrela bada, baimena eman zen finantzaketa eskuratzeko laguntzen berariazko programa bat ezartzeko, gehienez 600 milioi euroko zuzkidurarekin, izenburuan aipatutako agente ekonomikoen zirkulatzaile-beharri zanei erantzuteko, batez ere.

Dekretu horren aldi berean, Administrazio Zentralak sektore pribaturako hainbat finantzaketa-lerro antolatu ditu Kreditu Ofizialeko Institutuaren bitartez, eta horien artean dago «Finantzaketa % 100 KOIrena - Arriskua % 100 kreditu-erakundeena» azpilerroa, «KOI-2010eko likidezia» finantzaketa-lerroaren barruan. Bada, 41/2010 Dekretuaren helburu berberak ditu eta, gainera, maileguak gauzatzeko fondoak ematen dizkie horri atxikitako finantza-erakundeei.

Azpillerro horrek, hala ere, 41/2010 Dekretuaren 10. artikuluan araututakoak ez diren beste baldintza batzuk ezartzen ditu maileguetarako eta, ondorioz, arau honekin, izaera osagarria eman nahi zaie finantzaketa-lerro biei, otsailaren 9ko 41/2010 Dekretuaren 10. artikulu hori egokituz.

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak 2010eko martxoaren 9an egindako bilkuran eztabaidatu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

**Artikulu bakarra.**— Enpresa txiki eta ertainentzako, banako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntzaren Programa garatzen duen otsailaren 9ko Dekretuaren 10. artikulua aldatzea.

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA

1514

DECRETO 80/2010, de 9 de marzo, de modificación del Decreto por el que se desarrolla el Programa de apoyo financiero a pequeñas y medianas empresas, empresarios individuales y profesionales autónomos.

Mediante Decreto 41/2010, de 9 de febrero, se aprobó el programa de apoyo financiero a pequeñas y medianas empresas, empresarios individuales y profesionales autónomos, que plasmaba la Disposición Adicional séptima de la Ley 2/2009, de 23 de diciembre, por la que se aprobaron los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para 2010 autorizando la implementación de un programa específico de apoyo al acceso a la financiación dotado con un máximo de 600 millones de euros y cuyo objeto fuera atender, básicamente, las necesidades de circulante de los agentes económicos citados en su título.

De forma paralela a este Decreto, la Administración Central ha articulado por medio del Instituto de Crédito Oficial determinadas líneas de financiación al sector privado entre las cuales se encuentra la sublínea de Financiación 100% ICO-Riesgo 100% EECC, incluida en la Línea de Financiación ICO-Liquidez 2010, que persigue idénticos objetivos a los de Decreto 41/2010 y que, además, provee de fondos a las entidades financieras adheridas a la misma para la formalización de los respectivos préstamos.

Esta sublínea lleva aparejada, no obstante, unas condiciones para los préstamos diferentes a las reguladas en el artículo 10 del Decreto 41/2010, por lo que se pretende con la presente norma conferir un carácter complementario a ambas líneas de financiación mediante la adaptación de la redacción del citado artículo 10 del Decreto 41/2010, de 9 de febrero.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Economía y Hacienda, previa deliberación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 9 de marzo de 2010,

DISPONGO:

**Artículo único.**— Modificación del artículo 10 del Decreto 41/2010, de 9 de febrero, por el que se desarrolla el programa de apoyo financiero a pequeñas y medianas empresas, empresarios individuales y profesionales autónomos.

Beste atal bat gehituko zaio otsailaren 9ko 41/2010 Dekretuaren 10. artikuluari («Maileguen ezaugariak»), 6. atala, hain zuzen ere:

«6) Finantzaketa-programa honetan laguntzen duten finantza-erakundeek, «KOI-2010 lerroetarako finantzaketa-baldintza orokoren kontratu markoa» eta «KOI-2010eko likidezia finantzaketa-lerroaren baldintza berezien kontratua» sinatu badituzte Kreditu Ofizialeko Institutuarekin, «Finantzaketa % 100 KOIrena - Arriskua % 100 kreditu-erakundeena» azpilerroaren arabera jasotako finantzaketa aplikatu ahal izango diote programa honi.

Horrelakoetan, azpilerro horren babesean gauzatuko diren maileguen baldintzak bertan xedatutakoaren araberakoak izango dira. Hala eta guztiz ere, maileguen nahitaez bete beharko dituzte honako inguruabar hauek:

Epea 3 urtekoa izango da, urte bateko gabealdia-rekin.

Maileguen interes-tasa KOIren lagapen-tasa finkoa izango da, «Finantzaketa % 100 KOIrena - Arriskua % 100 kreditu-erakundeena» azpilerroan definitutakoaren arabera, gehi % 0,90eko diferentziala gehieitez.

Elkarrekiko berme-baltzu lagunzaile batek ablatuko ditu maileguak, eta eskatzaileek dekretu honetako gainerako baldintza orokorrak bete beharko dituzte».

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Ekonomia eta Ogasun Sailak dekretu honetan xedatutakoaren arabera egokituko du enpresa txiki eta ertainetzako, banako enpresaburuertzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntzaren programa antolatzeko 2010eko martxoaren 1ean hainbat finantza-erakunderekin sinatutako lankidetzitzarmena.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lebenengoa.**— Ekonomia eta Ogasuneko sailburua ahaldundi da dekretu hau garatzeko beharrezko xedapenak emateko.

**Bigarrena.**— Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean egongo da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko martxoaren 9an.

Lehendakaria,  
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,  
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Se añade un nuevo apartado 6 al artículo 10 «Características de los préstamos» del Decreto 41/2010, de 9 de febrero:

«6) Las Entidades Financieras colaboradoras de este programa de financiación, que a su vez hubieran suscrito con el Instituto de Crédito Oficial, tanto el «Contrato marco de condiciones generales de financiación para las líneas ICO-2010», como el «Contrato de condiciones particulares de la línea de financiación ICO-Liquidez 2010», podrán aplicar la financiación obtenida en virtud de la sublínea Financiación 100% ICO-Riesgo 100% EECC al presente programa.

En este caso, las condiciones de los préstamos que se formalicen al amparo de dicha sublínea se adecuarán a lo dispuesto en la misma. No obstante, los préstamos deberán respetar necesariamente las siguientes circunstancias:

El plazo será de 3 años, con uno de carencia.

El tipo de interés de los préstamos será de Tipo de Cesión Fijo ICO, tal como viene definido en la sublínea Financiación 100% ICO-Riesgo 100% EECC, más un diferencial máximo de 0,90%.

Estos préstamos serán avalados por una sociedad de garantía recíproca colaboradora y sus solicitantes deberán cumplir el resto de condiciones generales de este Decreto».

#### DISPOSICIÓN ADICIONAL

El Departamento de Economía y Hacienda procederá a adaptar, conforme a lo dispuesto en el presente Decreto, el Convenio de Colaboración con diversas Entidades Financieras para la instrumentación del programa de apoyo financiero a pequeñas y medianas empresas, empresarios individuales y profesionales autónomos para el año 2010, suscrito el 1 de marzo de 2010.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**— Se faculta al Consejero de Economía y Hacienda para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo del presente Decreto.

**Segunda.**— El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 9 de marzo de 2010.

El Lehendakari,  
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.  
El Consejero de Economía y Hacienda,  
CARLOS AGUIRRE ARANA.